


## UDA, BESTE BEHIN, BEROA IZAN DA EAEn

Bukatu berri den uda meteorologikoa, hau da, ekaina, uztaila eta abuztua kontuan hartzen duena, oso beroa izan da EAEn. Udako temperatura, 1981-2010 denboraldi klimatologikoaren batez bestekoarekin alderatuz, 1,1°C altuagoa izan da.

Jarraian anomalia positiboa duen zortzigarren uda izan da (grafikoan zutabe gorritz adieraziak) eta 1950 urteaz geroztik izandako bost uda beroenen artean dago, 2003ko udatik urruti hala ere. Nabarmentzekoa da, era berean, azken 16 urteen artean 12 kasutan uda beroak izan direla.



Ekaineko temperatura batez beste klimatologikoa baino 1°C altuagoa izan da. Hala ere, gorabehera handiko hilabetea izan da; hilaren 12an ekaineko temperatura minimo absolutuaren errekorra gainditu zen barnealdeko zenbait estaziotan, Iturrietako mendietan izotza eta guzti bota zuen, eta hilaren bukaera aldera bero bolada gogor bat izan genuen.

Ekainaren 26 eta 30 bitartean temperatura maximo absolutuen efemerideak neurtu ziren, ekainekoak EAEn hainbat lekutan eta urte osoak 4 estaziotan (ikusi 1 taula).

Baliorik altuena, 42,6°C, Moredan neurtu zen ekainaren 29an, estazio horretan inoiz neurtutako temperaturarik altuena izan zelarik. Gaueko temperatura ere altua izan zen egun horretan; Oiz mendian (1000 metrora) 27,4°C-ko balio minimoa neurtu zen.

Uztailean, 1,4°C-ko anomalia positiboarekin, udako bigarren bero bolada izan genuen, hilaren 22 eta 25 bitartean. Kasu horretan ere, hainbat estaziotan uztaileko temperatura maximo absolutuaren errekorrak gainditu ziren eta horietariko batzuetan urte osoko errekorrak ere (ikusi 1 taula).

Temperaturarik altuena, 42,5°C, Eitzaga (Zaldibar) eta Ibai Eder (Azpeitia) estazioetan neurtu zen, azken horretan inoiz neurturiko temperaturarik altuena izanik. Bero bolada horretan zehar gauak ere beroak izan ziren; nabarmentzekoa da uztailaren 24an, hego haize zakar eta etengabearen ondorioz, gaueko hamarretan Bilbon, Deustuko estazioan, 30°C neurtu zirela.

Abuztua ere beroa izan zen, 1°C-ko anomalia positiboarekin, nahiz eta ez genuen ez bero boladarik ezta efemeriderik izan eta temperatura oso altuak soilik 3 egunetan egon ziren. Abuztuko temperaturarik altuena 37,2°C-koa izan zen eta hilaren 8an neurtu zen Ibai Ederren (Azpeitia).

ESTAZIOA	EFEMERIDE BERRIA Tmax ABSOLUTUA (°C)	DATA
Arboleda	39,8	2019ko ekainaren 27an
Moreda	42,6	2019ko ekainaren 29an
Paganos	40,6	2019ko ekainaren 29an
Zambrana	41,3	2019ko ekainaren 29an
Ibai Eder	42,5	2019ko uztailaren 23an
Berriatua	41,9	2019ko uztailaren 23an
Sodupe-Cadagua	41,4	2019ko uztailaren 23an
Miramón	41,1	2019ko uztailaren 23an
Areta	40,7	2019ko uztailaren 23an
Oleta	40,2	2019ko uztailaren 23an

1 taula: Temperatura maximo absolutuen efemerideak.

Era berean, bai Europa mailan baita mundu mailan ere uda meteorologikoa beroa izan da. Europaren kasuan, 1,1°C-ko anomalia positiboarekin, 1979 urteaz geroztik laugarren udarik beroena izan da (datuak: Copernicus).

